

IGANDEETAN IRTELZEN DA

BIZKAIKO ETA GUIPUZKOAKO EUSKERAZ EGUNA

DOMEKETAN URTETEN DAU

1902-ko Maiatzaren

II^a

Euskalerrian, iru peseta urtean. Erdalerrian, sei peseta urtean.

Guei Bakocha, Chakur chiki bat.

1902-ko Maiatzaren

II^a

IBAIZABAL-en Echea: Bilbon—Dendari Kalean (Calle de la Tendería) 19—Jaun José Astuy-renean.
Eskutitz edo karta guztiak zuzendu beitez artezkariaren echera: Tívoli, letra B, 2.º derecha.

UDABERRIARI

¡Nun zaude, eder laztan ori? ¡Ezal-dituzu ikusten belar-landare-abez-zugatzak zu ikusteagatik soñko berriz jantzirik?

Marrubiak ezkutuan dauzkate beren ale bizartsuak otzaren bildurrez jeta zu marrubiaren aurak berotze-ko etzera aguirri!

Kalendarioan aspaldion irakurrita dadukagu aguertu ziñala.

¡Inauteri-egunetan mutil buru-ariñ-kaskil-utsak mozarroz bezela, kalendarioz estalirik bizi otezena, udaberri maitagarria?

Eguna luzatzen, gaua laburten; landa ta soroak gozatzen, landareak guritzen; gezalziñake onela pozago bizi izango, or neguaren galtzarbean abenduaren izotzezko izerdi zarra us-matzen egon gabe?

¡Zertarako jaiki-erazi eguzkiari goizean goizcho, otoi-artearen neguko egun labur otzeten bezela estaldurik ibilli bear badu?

Egipto-aldean, inguelas atso-agure musu-gorri diru gorridunak bezela, negua igaro oihulen chorri ipur-churi moko-motz buru-beleak jzertarako nai dituzu atsekabetu?

Zeru gorenean aldamarroka alkarrachikitzen ibilli bear luketen egazticho chiolari oriek jzergatik darabilkitzu okollu-egaletan, bular churiak loietan zikintzen, euli zakarren billa, katuen atzapar zorrotzak—ez ukitu bai ukitu—chilio eraguiten diotela?

¡Eztiozu entzuten nola dabilzaten galdezka udaberria udazartu ote-danez?

¡Ain urrutitik erakarri! ¡Ain pozik berak zure echean sartu! ¡Ain maiza gogo zuri deika! Ta zu jlo? ¡nanguia? ¡keri? joto?

¡Ezer zor al diezu, ez aguertu nai izateko?

Zu gaztetatik ikusi etzaituzten indiano buru-churi asko daude, udaberria, beren erri ontaraturik, zuriz jantzi nai luketela.

Zu maite zaituzten sagardo-zale beredin(1)irtetzen dira igandero, sagardo asi-berria maulutsik (jakea erantzirk) edan nai luketela.

¡Zer dezu, negu beltz euritsu eriotza-lagun orri ez utzi nai izateko?

Zure jaio-egunetan bertsolari askok

(beren buruak ereslari edo poetatzat dauzkateneak) lanari erasoten die ta beguinak aro urdina baino legorrako idukiaren, negar eguiten dute; ezarra marrantaz ichia dadukatenean ere, kantatu.

Oien negar malko gabeak, kantu otsik eztuteneak, neurria baino beste mamirik eztaukaten bertsoak zotezauzkate, udaberria, sapuzturik, gu-regana aguertu nai eztezula?

Estal itzatzu (au guerta bazaitzu) itsas-marrumaz zure belarri minbera oiek; eta zatozkigu, laztan ori, ta guritu ta aletu ta narotu ta apaindu itzatzu, zu ikusteagatik soñeko berriz jantzirik dauden belar-landara-abezzugatzak.

EKETAK.

MAYATZEKO LARROSA BATERI

¡O lora guztien Andrea!
 Zarean larrosa eder galanta,
 Amore garbi ta leunaren
 Zu zara loretan bakarrik antza.

Aizecho bigunen umea,
 Zororik naukazu, zuri beguira,
 Eitamuz, usaiñez, kolorez,
 Kanpoan zu zara gaur Erreguiña.

Goiztan intzaren perlacho
 Politik esnatu egiten zara,
 Mendien ostetik jaguiten
 Danean arrorik Erregue-izarra.

Idigui eiozu kolkoa,
 Bizkortu zaguizan bere beroak,
 Edertu zaguizan kolorez,
 Beraren urezko erranchoak.

Joan zan negu baltz gogorra,
 Bere lei, edur ta chingorrakadakaz,
 Maiatza datorku apatzik,
 Egun eztitsu ta gozoakaz.

Jasoizu burua zardenik,
 Bapere bildurrik gaur artu baga,
 Neuk pozik artu eguiñ eta
 Eroan zaidazan leku obara.

Apaindu daiozun burua
 Zeruko loretan Andra danari,
 Altaren gañetan daukagun
 Amore ederraren gure Amari.

FELIPE ARRESE TA BEITIA

NESKAZARRARI

Eztakit nola asi, aiñ dago nastua nere burua. ¡Zeñek pensatu bear zuen nik IBAIZBAL-i bialdu nizkan bersoakin dauden bezela aserretuak gueldituko zirala? ¡Zorigaitzoan egun nuen lan ori! Jakin izan banuen gaur bezela zer guertatuko zan... ¡berealasse asiko nintzan izkribatzen! Baña nork pensa zezakean? Nik beintzat ez nuen usteko sekulan orrelakorik. IBAIZBAL-ek ditu erru guziak. Oni gogoratu zitzaión eskatzea bersoak neskazarraren gañean eta nik beste askok bezela antolatu nituen batzuek liburn polit bat irabazteagatik. Orra garbi garbi aitortu. Eta iker zori gaitzoa! Nere bersoak merezitu zuten lenengo saria eta irabazi det liburuchoa. Baña iker balio du onek, baldin bera irichitzeagatik galdu badet sekulako neskazar denen edo beñepin gueien adiskidetasuna eta berak zidaten naitasun eta estimazioa? (1) ¡Bazenakiteke nola bizi naizen aditu nuen ezkerro nere kontra izketan ari ziñaztela alde guzietan, kupituko ziñazteke, eztago dudarik, eta bertatik barkatuko zenizkideke nere gaizki esan guziak (zuek diozutenez.)

Eztet jaten, eztet edaten, soseguzko lo bat eztet eguiten. Beti neskazarrak dakazkit gogoan. Edaten edo jaten asitzean iduritzen zait edontzian eta erretilluan daudela, eta ori bera guertatzen zait oeratzekoan guelen sartzen naizenean. ¡Eta nola ez, baldin ni bizi naizen echean bertan bizi bider bi edo iru guchienaz!

Ez naiz kalera irtzeten illundu ezkerro, zergatik pensatzen det uste gabe edozein chokotatik norbaiten atzpar luze eta otzak zintzurretit eldu eta itotzeko zorian jarriko nautela. ¡Ai, au bizimodu sortu da neretza! Aguijan (ojalá) ezpazan iñoiñ IBAIZBAL ori nere beguien aurrera azaldu! ¡Gaur ez nuen damirik izango!

Badira neskazarrak, len nerekin adiskide beti ziranak, orain bekoki illuna jartzen diratenak; badira diosalik egiten eztidatenak, eta bai omen dira beste batzuek esaten dutenak merezi nukela urkamendi batera arrastaka eraman ta... ¡Jesus, Maria ta Jose, ori oien aserrea, ta au nere bildurra! Baña jzerk orrenguiar guiarrean ikutu ditu? ¡Zergatik orrenbeste errenkura? Zergatik orrenbeste meacha edo amenaza eta zergatik orrenbeste gorrotatu eta gaitzetsi ta igüiti nazute? Jossepa Antoni eta Dominika izena duten guziak aserretu dira bi izen oiek izendatu nituelako, eta iduritzen zaiotelako berengatik jarriak dirala bersoak, beste batzuek beren aideak monja joan diralako, besteak senargaia izan eta ezkondu etziralako, au ortz-falta dalako, ori maiz konfesatzen dalako, hora minga luze ssamarra duelako... ¡nik aldakitz! denak, bakoitzak bereztat, nere bersoetan adiera edo enbidoren bat arkitzen dute.

(1) Eztezu, jauna, gauz aundicik galdu. (Kajista batek.)

¡Ederra eguiñ det! Utsa neskacha gazteak aserretu baziran, abengatik etziran ainbeste ajola; baña neskazarrak, orrenbeste maite nindutenak aserretzeak eman dit atsekabe bat...! ¡Au izugarria da! ¡Kiskaltzen nago eta eztakit zer eguiñ!

Lengoan esan zidanean nere lagun batek nere bersoan ordanak jartzea gogoratu zitzaiola. ¡sartu zitzaidan bildur bat...! eta esan nuen nere artean: izan bedi Jaungoikoak mai duena.

Egunero egon naiz zalantzau noiz edo noiz artiko ote nuen karta ikarragarri okerreriz betetakoren bat, eta asteazken egüerdian lanteguitik echeratu nintzanean eta eman zidatenean karta bat, Erronterian eguiña, kartestalki edo sobreak dionez..... jemen dek, emen dek! esan nuen nere artean, baña denbora beraean otzikarra bat igaro zan nere gorputzean eta aguizt arrituta guelditu nintzan. Negandu ondorean, zirt edo zart, eguiñ bear bada, eta ez ikara guchi-rekin, baña nolazpait idikti nuen eta iker uste dezute topatu nuela? Letra polit batekin izkribatuak itzik kendu eta irachiki gabe, dauden bezela, orain irakurriko dituzuten bertsobek.

Ez nuben bada pensamenturic zuri bersuak jartzeo
 bañan lagunae esan dirate
 isillie es egoteo
 motiborican es degu eman
 zu orrela mintzatzeko
 es diran gausac esanditusu
 diña da minberatzeko

Ibaizabalen zari chiquibat irabaztea gatican
 gogora eterri sainsun gustiya
 esandesu gugatican
 nic esan bear banu munduban
 saude gaur gure gatican
 zu sendatzooo sendagarrirrie
 etzan inungo botiean.

Zenbait alditan zu sendatzooo
 egunditugu erresuac
 pena aundiya ematentzigun
 emazte eta gurasuac
 jzenek pensatu zuk gure contra
 orrela jartzia bersuac?
 ez guera bada zuc uztedezun
 besiñ enbidiosuac.

Gu ernegatzen biciguerala
 senargairicanen esta
 nere lagunen artean beintzat
 orrelacorican es da
 neri sinisten es badirasu
 echian azi galdeca
 nic baña obeto emango disu
 Vicentac errespuesta.

Zure amigo batec esandu
 nescasar onic esdela:
 orren ederqui gure gañean
 eguidesute pastela.
 Pruebarie asco berac baditu
 ori eguiya ezdela,
 gure moduco persona esda
 esangonuque bestela (1).

Gasteac monja juan diralata
 gaur culpa nescasarrari

(1) Nik esango det bada. Marka oiek az liteke izan
 apaizzen bat besterik. Zuek nai deutzeta esango deute
 zeroa buruak ederzeagatik... baña ni apaizan alde on-
 tan; eta ez aserretu orrengatik.

zure partetie naigaitusula
danoe erritic biali
vocaciorri esbaseucaten
gártaco ala ibilli?
lagundutzia suten echean
aitari eta amari.

Nescasarraren isenac denac
ditubela icaratzan
oriyen jabe eguiñ esquero
egongo dela erretzen
zerbait dutenac isanagatic
es asteco oyee artzen
guretzat beste disparateric
gesaltzaisu gogoratzan?

Esquian dela esan digusu
gueyeanen errematia
esta seguru escondea ere
bide ortara ez juatia.

Ya icusi degun esqueros
gaur sure borondatia
escusatuco degu jotzia
zure echeo atia.

Ezait gustatzen religiyoco
gausac autan ibiltzia
errespetoco gausa gustiyac
serio tratatutzia
arriturican guelditu guera
zu orrela mintzatzia
esperatzendet oinbesterékin,
Enrique, comprenditzia

Edadechoço nere lagunae
nai nituben anparatu
oriyei gusto emateagatic
dizutordañac vueltatu
naibaditusu Ibaizabalen
oyekere copiatu
eta sariric ematenbadu
gutas ere acordatu

JOSEPHA ANTONI ETA DOMINICA.

Ederki daude Joshepa Antoni eta
milla ezker Ibaizabelen izenean. Pro-
gatu dezu bero abekin aurrekoan
ondorengoa zerala. Ta orain buka-
tzeko itz bi. Aztiatu edo asmaturik
zer guertatuko zan, esan nuen Azal-
dea-n eznuela inorengatik farra' egui-
teko asmorikan, chit maite nituela
neskazarrak chikitandikan (maite di-
tudun bezela eta bidez eskarrikasko
denari zuen otoitzangatik) ez nituala
lotzauerazi nai; baizik Ibaizabal-ek
aguindutako saria nai nuela irabazi.
Bañan zuek, dudarik gabe eztezute
ondo irakurri bersorik, edo bestela
ofensik eztagon tokian badagola idu-
ritu zaizute eta... zapla! jarri dituztu-
te beroak. ¡Ale, ale, biziak laia di-
raztenean gaitzerdil! ¡Zer egungo
det orain! Ni guzira jartzen naiz eta
nola eguiña eguiña dagon eta eztagon
beste erremediorik, eguiñ det
asmoa barkazioa eskatzeko eta si-
niste osoan nago eskuratuko dedala,
zergatik, esanaz esan, neskazarraren
biotzak bigunduko dirala iduritzen
zait. ¡Eguia baita?

¡Eztakizute kristau dotriñak esa-
ten duela norbaitek iraindu edo min-
dutzen gaituenean, mendekatu bea-
rrean, barkatu eguiñ bear diogula?

Umiltasun gueiarekin eskatzen di-
zutet bada, baldin eguiazko kristau-
ak bazerate, barkatu zazkidaztela
nere gaizki esan edo ofensa guziak,
eta orrekin lan errukitsu edo miseri-
kordiazko bat besterik eztezute
egungo.

Nik nere aldetik aguntzen dizutet,
ordainean, eskatuko diodala. Jaun-
goikoari eman dezaioa neska zar
guziarri, senargai on bana, edo aberas-
tasunak (1) edo berak nai dituzten
zori on denak; arkitzen diran bizi-
tza... (esango ote det) ¡triste!! orretan
doatsuak izan ditezen beti betiko.

Utzi bada nigan daukazuten etsi-
tasuna, eta orain artean bezela ja-
rraiki dezagun pake onean ballera
negarrezko onetan bizi gueran bi-
tarrean.

Agur bada... eta urren-arte.

ENRIQUE ELIZECHEA.

(1) Edo urteak bizkarretik kontzeko balsamo bat.
(Lengo kajistak).

AMALABAK ETA KOSANTON INDIANOA

III

Lengo eguneko amalabakaz eldu nintzan
neu be Bilbora. Indianoa ezaututeko gue-
roago gogo gueiago neukan. Ostatutik osta-
tu ibilli guilean: atsoa isildu barik, alabea-
ri goiza luze erichola, ni eguna luzatu si
izateko gurariz. Guichienez sei bidar esan
eutsan amak alabeari: «Krispiña, guero ar-
pegui argua ipini ta musturtuta égon barik
berba asko eguin: erdera sarriago, *Kolegioan*
égon azana jakin daian.»

Eztakit nor zan esan eutsena, egun atan
Santander-tik ontzi chikilu bat etorriko za-
la. Ordu bete inguru guichienez igaro guen-
duan Bilboko Zinguirako Nasan. Zinguira
esaten deutse ta eutsen Bilbo-inguruko ba-
serritarra gaur *Sendeja* derichon inguruari.
Nasa bizkaitar askoren berbetan erderazko
muellu da.

Bagagoz ba egon, da egon, da egon ontzia-
ri beguira. Alango baten aurre zorrozdu
ontzi baltz chiki bat chistu-ots andiakaz
aguertu zan.

Orduan amak alabeari an dator Kosanto-
nio, esan eutsan, ondo guizon gorri ederra;
an aurre aurrean.

—¿Zein? —An datorren agura zaarra? —Bes-
telangoal, —Aberatsa dala nok diño? —Ta au-
rrean etorri?

—? —Agurea? —Ule urdiñac daukazalako?
Gueure amama Kontze be gazte gazterik
urdindu zan. —Zer dakar beronek? Ea, Kris-
piña, atara *paisloa* ta arrera ona eguion Ko-
santon gureari.

—Nork nor dan eztakidala?

—Krispiña guero.... ez guero inor Norbera
beguira ipini, Goazan beragana.

Eguia esan bear bida, Mariñasik besto
erielhi bat enkiarren, agurea guzunilk esan
barik esan leio Kosanton. Ezpan-ganeko bi-
zarra guztia dau urdiña, betuleak be gueie-
nak bai. Ontzia nasa-kontrara eldu zanean,
Mariñas a si jakon erdi-negarrez erdi-barre-
ka deadarrez esaten: Kosanton, neure neba
ederra zara? Ezin esan leike, zeure arpegui-
ri beguiratu-ekzero, ainbeste urtetan kan-
poen ibillia zaneanik. Ondo guizon gordu
ederra zatoz. Amen Krispiña be. Artuko zen-
duan, Kosanton, gure *Kartea*, Krispiñak egui-
na zan-da.

—Bai. Eskola andiak emon deutsazuz
umeari.

—Umea? —Neu baiño andiago eguiñiko
neskatillea? Eskolak eztakaz, *kolegioak* bai-
ño. —Zer ba? Prantzes ta bordaua ta ikasita
dago. Ea, Krispiña, eguion ea prantzes. Tira
lotzatu barik. —Isilik dago berau! —Nogana
emonikoak dira? Ausse dago guero. Emon
kolegio andiak, erakutsi ortik-emetiko jakitu-
ria guziak gata guero zer? Guraso koitaduai
gustu bat emoteko eztira izaten.

Onetan Kosanton bere gauzen billa ontzi-
ra barrura joan zanean, amak alabeari esan
eutsan: «Krispiña, apurtu apurtu egungo
aut, neure esanik egutzen ezpadon. Prantzes
eguiteko esan daidanean, guero prantzes
eguin guero.

—Baina nik lau edo bost berba baiño eztak-
idaz.

—Bada oguei bidar esanezkerro, laroguei
edo eun irudi izango dabe.

I ezadi isildu ta ederto dakiñalakoan egon-
go don osabea. —Ene alabachu ederra! Bizi
izaten ikasita be kontuak dagoz.

Ostatu-izki eche-zulo batan balkalduta,
joan zirean irurak Achurin zein oinez Du-
rango-ko burdinbidera. Indianoa, bertara
eldueran, aurreratu jaken chartelak artu-
teko.

Bakarrik guelditu zireanean, alabeak isil-
churik esan eutsan amari:

—Ama: onanteau *tertzeran* gda aranizean
be *tertzeran*?

—Nok diño ori?

—Agureak eztau besterik artuko, bero-
rek ezpadiñotsi. Bazkalduteko *tremenos*

kuartillo-ko ostatura eroaten dabenak zet-
nai dan eguitea?

—Krispiña, isilik nago, baiña ez gogoz.
—Agurea ta magurea!! jezago charra goiz
guztian aguraka ta maguraka! Baaa...

—Berorrek ezpadiñotsi...

—¡Kesus, mila bidar Kesus! —buru guztia
zelan ipini bear deuste?

—Kosanton: lagun askochu be badago ta
ondo izango da *primerakoa* artutea.

—Primeran ariñago joaten alda?

—Ori ez, baiña bakizu ba. Niri neurri ne-
gaitik ezteust ardurarik, baiña alabea da-
kat or primeran ibiltera egunda dagoana.
Guik eztuogu besterik oituten. —Zer ba?

—Ene demorioaf Ezagun da nor il zan.
Gure ana Okelachu Arratzuko bizi balitz,
eztot esan be eguin gura.

Zelan edo alan sartu zirean suburdian
(trenean). Mariñasik sinistu be eziñ eban
beré burua an ikustea. Gora ta beera ta albo
guztietara beguira obilen, da edozeri eri-
chon ederra.

Onetan indianoak ezmezean (1) egon ba-
rik arpegui arpeguiara esan eutsan: «Mariña-
si, —eztakidala ba beti zabilzala *primeran*?

—Baiña an *koche* barria jaztu. —Epta, Kris-
piña? Errondako kolegian monjakaz euki
dot urre bi edo iru onetan, iñun direan gau-
zak ikasten, prantzes da edozer; eta bai sartu
ta bai atara nebanean be, bakizu ba, bein
polla-usain emoten asiezkerro, aienekoak (2)
doazan lekuak ezin joan ba, zori onean ba.
—Epta, Krispiña? Ene alabea —miñori nun
dozu? —(Osabearen aurrean zuketan berba
egutzen eutsan amak alabeari, iketan barik).
—Zuriñ esan bear jatzu tmea esaten jakena:
katuak jan deutsula miñina. Kosanton, an
zokondoan dagozan agura chotundunak pran-
tzetsak dirudie ta zoaze bestela baitakean
euren ondora biok; eta Krispiñak esango
deutsu oskeraz, arek prantzeset diñoena.

—Ama jbai, bestelangoal neu lotzatu egui-
ten naz da....

—Zer derichazu, Kosanton, onek diñoana-
ri? Neuk zure beste baneki, Krispiña, enin-
tzake isilduko Elanchobera eldu artean.

—Erroke gure *auzokoak*, nigaz eskolara
ibillia —bizi da oindiño?

—Bai, Kosanton, zure chikitako laguneta-
tik bat be eztia il.

—Ondo bizi da Erroke?

—Ezkonduta guztia. Da baki zeuk be
laster ezkonduta bortz izango dozuna; osteran-
tean ezteutsue baketan ichiko.

—Agura-billa nor dabil?

—Agurea nor da? Nai leukeo ogeta ama-
best urtetik berrogueirako guizon guztia
zeuk langosse osasun ona ta kokot-mamín
gorri ederra ta gorputz zuzen lerdena euki.

Krispiñak onek entzueran sutan eukan
arpegua; ta nebarrebak autu au gueiago ez
luzatutearren, estu estu esan eutsan amari:

—Ama —badaki an dagozan prantzesak zer
esan dabent? *Trés joli*. Erri au guztizko po-
lita dala.

—Eztot nik esan, Kosanton? —Zelan, Kris-
piña, zelan? —Tedssoli? Burua bear da eurok
ikasteko.

Onetan-orretan eldu zirean Guernikara.
Orduko gora ta beera, eskuak atzean ebaza-
ia, ebilen arako Kosanton, Mariñas-ren
ezaztia, lenegotik nor dan dakiguna. —Amen
dator Okelachu Arratzuko-neko Mariñas
be esan eban.

—Nor? Jaungoikoaren alabak gara, ez oke-
lachu edo mokelachurenak.

—Onantzean primeran e?

—Zer? Enozu sarri sarri ikusi. Bein edo
bein ikusiko nenduzun *tertzeran* ibilten,
konpromisoak be anche egoten dira-la.

—Gaur zoaze Elanchobera?

—Bai gu.

—Au izango dozu nebea. Eneban ezautu-
ko. Ondo zaarra dator ba.

—En indecisión.

—Arrantzaleen Bermeo-aldeko iza bat.

—El eztaukat ezer esateko. Agura guil-
bor-andi onek dakaren gogaldia!.

Guero Kosanton biak alkarregaz Iuzaro
berbeteran egonda guero, Elanchobera man-
do-burdi chiki baten joan zirean amalabak
eta Kosanton indianoa.

(Jarraituko da)
EKETAK.

KARABINEROAK

Ezta noski arkitzen
munduan guizonik
oriek aña etsai
izango duenik.

Nere bizian eztet
sekulan entzun nik
iñork esan duela
ezer ere onik
baña beraren kontra
iñorkazkit entzunik...!

Frantxitikan nentoren
bein, bida trenean
baserritar batzuek
koche ber-berean
esserita nengoen
leio-bazterean
ikusten nituela
beguen aurrean
edertasun audiak
zeru la lurrean.

Eta izpide polit au
nioten aditu
eta entzun ta gero
nintzan chit arritu:
norbaitek bi oillasko
bart arrapak ditu,
kabia arrautz gabe
gañera guelditu
ta zakurra diguto
izkiñak...! zauritu.

—Falta dira baratzan
tipul ta portuak
patata asko-ssamar
eta aña-buruak,
perregill, baratzuri,
ta esparraguak....
jorra nik artu bear
nituen diruak...!

—Nork arapatu ditu?

—Karbabiñeruak!!
—Aussenda guri sortu
zaigun komedia
ta eraman dute
gure sagardia
naiz dala gueza edo
naiz dala gazia
berentzako ona da
sortzen dan guzia...!
—Kenduko nioteke
pozikan bizia!

Fusilla arturikan
bere sorbaldean
ta manta zur audi bat
ere bizkarrean
or dijoa mendira
illunabarrean
jartzen dalarik laster
zea-etzinean
iñork ikusi gabe
sasi basterrean.

—Kontrabando zurrian
beti or dabilta
nai gabe entzun bear

zarpall oien itza
guk egui ta oiek artu
ederki gabiltza
emendikan betiko
bialdu albanintza
ez nintzake aserre:
orra eman itza.

Aitonak dio: «Eztegu
orien bearrik
eztirate eguiten
kaltea besterik;
bedere ezpaldin banu
orien bildurrik,
izango nuke tossa
tabakoz beterik
ita orain eziñ zelaian
jarri landarerik!»

—«Lengoan nentorrela
Hendaiko fértil
soñeko gaia kendu
ziraten saskitik
Liñak ere zekarren
beste zerbait andik
baña eskupetikan
chanponak emanik
askar bialdu zuten
beguien aurretik.»

Aspertu gabe izketan
denak ari ziran
trapichera lodi bat
zotorren an bertan
eta besteetara
urbildu ondorean
jarririkian eskuak
bere guerrieta
kopeta illundu ta
asi zan izketan.
—«Guchienak baditu
sei aurcho berekin
orra or zortzi lagun
emaztearekin.
jaserre diradela
zazpigarenakin...!
enaiz ni arritutzen
ezercho orrekin
ñola báda mantendu
sei errealekin?»

Baserritar guziak
ziraden alehatu
trapichera tristea
nairikan zanpatu,
baña onek etzion
inori barkatu.
Iskanbill ura nuen
chit penaz nik utzi,
Erreenterira trena
zalako íritsi.

ENRIKE ELIZECHEA.

EUSKALDUN ERDALZALEA

Amolar tijeras

I

—Bai arraietan, eztek bertan-be
rakoja jauregui au!
—Ze abil Joane?
—Ola, D. *Leopardo*: (1) bedorren
jaureguia ikusten oso arriturik.
—Oraindik ere etziok *todo akabatua*,
baño denbora asko baño len
egongo dek.
—Eta, ai beza; goia alda lau anka
ko etzaleku ori?
—Ez: ori dek *sopá*. (2)
—Beraz erderazkoia izango da. Eus-

kerazko sopa, gure amak eguiten
duena beñepein beste gauzarik da.
—Eta beste erdibiribil, goi luze, bean
eserlekua duten oiek?
—Oiek dituk *patakak*. (1)
—¿Eta bazterreko mai polit ori?
—Ori dek *konsula*. (2)
—¡Ai! ¿num bizi naiz ni? Nik uste
nuen konsulak bizardun guizonak
zirala, Prantziako Inguelatierratik
etorriak.
—Bai: ik edozer gauza.
—Barka beza, barka beza: ¿eta iz-
pilluzko atea duen armaio ori?
—Ori dek... um... bai... *kopeta* (3)
—Bat edo bat euskerazkoia danean
ere...
—¿Eta Euskalerrian eguiñak aldira?
—Ez, Donostian.
—Eta Donostian ¿ez aldute euske-
raz itz eguiten?
—Bai languilleak.
—¿Eta alperrak erderaz, beraz?
—Erderaz.... erderaz.... languille
eztiranak...
—Ba languille eztiranei euskeraz
deitzen zaio alperrak.
—Ire kontuak dituk oiek.
—Beguire, *Don Leopard*: kosta ere
eguingo zan jauregui au.
—¿Kosta? Bai ik jaso-ala urre.
—Eztakit orisse, jamurra! Amar
arroaterdi lasto jasotako mutilla
naiz guero ni plaza *plubikoan*.
—¿Eta lastoa nai dek *konparatu*
urrearekin?
—¿Zer nai du ba? Nik uste nuen
amararroa, lumatan izanta ere, amar
arroa zirala beti.
—Ago isillik, ibarregarri!
—Bai Jauna bai; bedori guizon ko-
rritua da, ta ni berriz oraindik eche-
titik Elizaera bakarrak ibilia. Bedori
jakintsu bat, era ni berriz kalabaza
bat. Jakinduria saldu albaliteke di-
rutan...
—Eníkek nik erosiko ordunachere.
—Zertako gueiago?
—Ez, zu etzera infidiosua ta... ba-
ña salduene etzenduke ba eguingo
aere ustez; zergatik ezc, saltzeko....
—Bai, bai; berandua dek eta bigar
arte.
—Agur, agur.

II

—Ama: bigar Amerikara joan bear
det sakua eta pare bat aitzar arteuta.
Iru illabete barru sakua bete urrere-
rekin emen naiz atzera.
—Baita Amerika bera ere ekarri.
—Arraietan, amar arroa lastoren
pisua *konparatzeko* ere eztala amar
arroa urrerenarekin dionak ainbes-
te diru eguiñ badu urte betean, nik
asko ditut lau ordu, parearekin sa-
kua bete eta atzera etortzeko.
—¿Eta zertarako dek urre ori?
—Orain baño obeki jan ta lo eguingo
dek orduan? ¿Uste dek, ik beziñ ondo
jan ta lo eguiten duela *Don Lecpar-
dok*?
—¿Eta jan ta lo eguiteko alda gui-
zona?

—Ez: guizonaren eguitetorkiak auna-
diena dek anima salbatzea, eta Ameri-
kara joan gabe ere anima salba deza-
kek, ara joanta baño obeki.
—An bertan ere religio asko izan
bear du ba.
—Bai ote?
—Bai beñepein emendik dijoaze-
nak daramaten relijiotik, apurrik ere
eztakarte onuntzkoan, eta an utzik
dute nonbait ere; eta orregatik an
religio asko izan bar du.

—Ba zuk ere beste ainbeste egui-
go zenduke eta obe degu urre guchi-
sseagorekin eta religio gueisseago-
rekin bizi, seme.
Ama: pilosopia andiehoa da ori ne-
retzat, eta konpomatzen naiz zure
esanera. «Pipa artu ta ura edan, ar-
doaren pare» esan oi zuen gure aito-
nak, eta goazen onetan.

III

—¿Qué vida *Don Leopoldo*?
—Estamos amolando (1) casa.
—¡Por cierto! que muebles tan pre-
ciosos!
—Sí: arreglararchos.
—¿Esta maquinaria?
—Para amolar (2) cape.
—¿Y en aquel angulo de la cuadra?
—Amolando un apartamento para
aberias. (3)
—Vaya; pues es mucho amolar.
—¡Ah! Si señor, sí.
—Pues con permiso de usted; voy á
la oficina, á Dios.
—A Dios *Don León*; gracias por vi-
sita.

IV

—Adi beza *Don Leopard*; *Don*
León zerdalduna al da?

—Nai bai; baño dakien erdera apur-
ra neri ikasia dík: ara issilka-missil-
ka neri galdeak eguiñ; eta atera era-
zi diranetik irtua, edo obeki esateko
ostua.

—¿Beraz erdera lapurtua bezela?
—¿Bezela? Ez; baizik garbiro la-
purtua.

—Nik uste det ba ondocho jakin
bear duela.

—Ik uste bai; zergatik itsuen errian
tuertoa izaten dek alkate.

—Adituko balitu orratio aren
por supuesto-ak, *iato-kreo-ak, epeliba-
niente-ak* eta beste orrelakoak, ezta-
kit zer esango lukean bedorreker ere.

—Oiek utsa dituk: nik Amerikan
lenengo egunehefik ikasi nizkian oiek
gnizik eta gueiago.

—Bána *Don León* Amerikara
joan gabe ikasi ditu.

—Bai alegria; ibána nola? Andik
etorriari adituta.

—Bedorreker ere norbaiti adituta
ikasiko zuen ba.

—Bai noski; baño ez emen, baizik
Amerikan.

—Eta Amerikakoak emendik joan-
ta koei ikasi oinen zioten ba.

—¿Ori ere esan?

—Eta izan, Bána utzi dezagun au,
eta goazen aurrera, ¿Ote du euskerak
itzik, bedorreker eztakienik?

—Eztiat uste.

—Nik bai.

—¿Eta ik jakin nik eztakidana?

—Si señor; beñepein báda gauza
bat benere aditu ez iodana aren in-
gurakoak adituta ere.

—Niko niket aditu itz ori.

Ara ba; idiki bitza ondo belarriak
eta gusto emango diot: bedorreker ba-
daki *amolar casa, amolar kapé, amo-
lar apartamento*, baño bedorreker ez-
takien da, aditu ondo,

AMOLAR TIJERAS

P. M.

UDABERRIAN

Udaberriko goiz batean zelaiochear-
tan nenbillela, intzetan espartiñak (4)
bustirik eta chorichoak arbol goitzu-
etan nola kantari ari ziran aituriak,
ustegabeen arkitu nintzan ermitacho
pollit baten inguruan.

Erreparuan jarri nintzanean pare
artara, ikusi nuen guizon motz eta
sendo bat, zillartutako ille eta biza-
rrarekin, aurpegui penagarri eta mal-
koak beguetatik issuriaz, belauni-
katurik, eta zirudien Jaunari otoitz
eguiten ari zala. Ingurutu nintzan
garaian eztakit igarri zuelako nor-
malak.

(1) *Amueblando*.

(2) *Moler*.

(3) *Amolando un apartamento para ganados*.

(4) *Alpargata*.

bait zala edo zergatik, alcha eta eto-
ri zan nere bidera.

Egun onak emanik galdu nian.
Adi beza, adiskidea, emendik urrutti
aldago erria?

Ez Jauna, nik topatu nai detan to-
kiko atea baño gertuago: eta gueiago
itzik esan gabe, ta agurrik egun gabe
alde eguntzuen bide chigor batean
gora. ¡Zer esan nai otezidan itz aie-
kin guzon ark ner!

¡Dudarik gabe pekatari aundiren
batek izan bear zuen!

Pekataria bada

Jaun ona, barkatu,

Zure bendeziorik

Ez orri ukatu.

Ermitaren aurretik igarotzerakoan
boina erantzi eta errezatu nuen
Aita gure bat guizon guizarajo aren-
tzat baldinba premian arkitzen bazan.
Egondu nintzan ermitacho ari begui-
ra, eta joan nintzan inguruko baserri
batera gosari mokadubat ematen ote-
zidaten galduako indarrak ordain-
teko. ¡Zer poza nerea baserri artan
arkitu nuenean ermitachoan ikusi
nuen guzon ura bera; galdu nion
zer esan nai zian nere galderari
erantzum zionarekin, eta ara nola
mintzatu zan.

—Nere gazte-denboran izandu naiz
gaiztoa, egun ditut milla gaiztakeri,
enuan ezer bildurrik ez Jaungoikoa-
renik, ta ez gurasoarenik, ta nere
ezbearren indarroz senideak eta la-
gunk gira egiten dira beste aldera
ni ikusten nautenean. Zenbat pena
ta zenbat gaitz igaro zituzten nere
guraso maiteak! Danak ni gaitzoa
nintzalako. Gaur arki naiz bakarrik,
alde guztietai gaizki ikusia. Orren-
gatikan joaten uaiz goiz eta illu-
barretan ermitara Jaunari erregutze-
ra arren eta arren barka dezaiola
pekatari aundi oni. Orra zergatik
erantzun dizutau modu artan. Zuk
beardezun erria dago chit guertu, eta
zeruko atea neretzat urrutti.

Erregutzen seguitu

beza bai Aiton:

Jaunan borondatea

beti da chit ona.

JOSÉ MARINO ARRIETA.

IZKIRIMIRIAK

I

Erri bateko alkateari *erregalatu*
zioten, erri guztiaren izanean, makil
edo bastoi bat, eldu-leku zillarrezko
eder batekin.

Nola bai zan bastoi au luzea, alka-
teak moztu egun zuen eldu-leku ta
lau beatz gueiago. Andikan egun ba-
tzuetara billatutzen dnto erriko ha-
tzuek alkatea «degira», «bastoia-
ri galatzzen dioto».

¡Zer! «Eldu-leku eder ura kendu
edo moztu egun aldio?

—Neretzat aundiegua zan, da.....
—Eta, nola eztu moztu betikan?

—Ara, zergatik.... goitik zuen gue-
iegui.

II

Mutill koskor bat zijoan goiz batean lapiko bat aragui troncho batzuekin salda ederrakin, gosaria eramatera bere aitari, soroan ari zan lekura. Nola zegoan bide luze-samarrar, eta usai gozoa ateratzen zan lapikotik, ezin egonik bera *probatu* gabe, ezan zuen bere artean:

«Pizka bat janagatik eztiat uste igarriko duela nere aitak.

Ta jan zuen piska bat; eta nola zegoan ederra, etzan guelditu arrekin, ta jan zuen bestea eta guero beslea, eta aitzenerako guelditu zan lapi-koia salda piska batekin bakarrik.

Bat batetan arkitu zan bere aitaren aurrean eta oso ikaraturik, asi zan negarrez.

«Zer dezu, seme? — galdezu zion bere aitak, lanari utzita, — guertatu alzaizu zerbait?

— ¡Ai, aita! azkar ekartzeagatik bedorrigosaria, nentorren korrika ta bat batetan, koska batean *trabatu*, ta ero-ri egun zait lapikoa arritarte batzue-tara.... ta salda bakar bakarrik jaso det.

A. AMONARRIZ

IGARKIZUNAK

Lenengoa

«Zer du gauza bearrekoa ate batek ichitzeko? X.

Bigarrena

Ara igarkizum bat
nik ipini emen

somatu litekena
ikusi baña len.

LCDA

Ollauri ta Palacios aitortzen dit Julik; baña oien berririk nola ezdetan nik, jbanekike zer egun onlako trantzean! Izer eguiñ banekike onla arkitzean!.... eramanagatikan eskua burura, ezin arki det zer dan Julik dion ura. Baña bururatu zait oranchen gauza bat, eguiñ lezakeana Julik berak anbat. Modu onez eskatu andre Jossepari, lendabizi *Palazios* bestela *Ollauri* eta nofa Jossepak daukazkien dendan, Iakrez ondo ichiak botill ederretan progratuko ditugu diraden bikañak, bustiaz mingañaren punthakiñ ezpañak, ala lenbizikoak aitatu duenak, pagatu bear ditu ustutako denak, baña ondorengokoala uste det nik, pagatuko dizkigu izenek, zeñek? Julik!

Kai erdian bi batel naigo ditut beintzat

Nik jakitera zertzan

zuk nai zenduena, ori zan neretako gauzik erresena, ezkeñi gabetandik eche ederrena.

Neronek igartzen det; neronek det pena, daukazuna kupira nere batelena.

¡Orí ez jakin beat! ¡arraietuna! ala ni naiz errudun oker guzieta, baña moldatuko det aldán zuzenena. Zuk bezela echeak asko dituena eta tellatz goiko gauzen jabiena, zala burutazio guizon bakanena esan nai nuen jkonehe!

Pepe Artolena Bi batelen ondoren ziñez dabillena, batez ere beraren zalantzak dagüena, an du nere partetik desio duena eta baldin gueingo balitz Peperena beretzako *Barrio Jarana* diena.

L. OYARI

Batel zar baten billa zabiltza nekean eta galdezen nazu jkonzpon litekean? Ez nizun nik esan nai ain erressa zala, pentsaturik lotsatu egungo ziñala, baña ikusirikan berriz zure seta, nola konpondutzen dan ara erregeta. Artzazu jostorratz bat luze modukoa

eta aria askoz luzeagokoa, muturrean duela korapillu on bat zulatuta itzul ez eguiteko dinbat. Josten asi zaitea albada goizean, jostorratza paseaz puntada luzean eta modu onetan nola nagusi emen, konpondua daukazu ordu bi baña len. Eztu izango baña jariorik balu, jaboien afarrakia kalafeta zazu ta eguiñ gabetandik guero jira bira, joan zindezke Burgosa nola Bitorira.

V. IRAOLA

Irugarren igarkizuu

Eskolan ikusi oi da nere *bala*; aurehoaz ikasten duten gauza bat da. *Bia eta irua* inoiz gogotikan saldu izan duten gauza da botikun. *Bia eta bata* chandetan ugari echeria eraman oi da botikatik. Da nere *guzia* gauza bañi bizia, ez jaio ez azia, ez illa ez eria.

GUELBENZU-K

LA EDITORIAL VIZCAINA derichon moldaguitzam
Gran Vía, 26 eta Ledesma, 15.

JESUSEN BIOTZARENILLA

BIZKAIKO EUSKERAZ EGUIÑA

TA GUIPUZKOAKORA EDOZEIÑEKERRAZ ITZULTEKOÀ

Ogueta amar gogarte (meditaziño) daukaz, atal edo zati biñakoak.

Elizguizonai ta edozeiñ euskaldun elizkoi erara jatorko liburuchi au, goizero Jesusen Biotzaren ganerako gartea eguiteko.

Liburuchi onek 210 orrialde (página) daukaz; da Bilbon IBAIZBAL-en echean (Tenderia, 19) eta artezkariarenean (Tivoli, letra B, 2.^o) dago salguei, sei errealegan; amabi artzera, bi doarik (gratis).

JESUSEN BIOTZARI OIUAK AZKUE ABADEAK EGUIÑAK

I.—Latinèz

Letaña barria (Litania nova SS. Cordis Jesu), liburu onen asierakoa, organua lagun dabela bik edo bitzuk oiu egitezko. Ume bi nai emakuma bi nai guizonak izan leikez letaña onen oiulari edo kantariak.

Zortzi errealegan dago salguei Bilbo-n Dotesio-ren Echean. Onezaz ganera, orain urte birarte gueukan letañeak, zatika motete-guisan oiu eguiñ leikeana, diru ta leku bardinean dago salguei.

II.—Euskeraz

- | | |
|---------------------------|--|
| Elizkizun-aurrekoak . . . | I.—Deiez daukagu Jesus. (Aldran).
II.—Nok eztantzu gogozi? (Batek).
III.—Artzaiñan deietara. (Bik).
IV.—Zeñ arguik? (Iruk). |
|---------------------------|--|

Elizkizun-artekoak . . . Jesusen Biotzaren erosarioa.

- | | |
|--------------------------|---|
| Elizkizun-ostekoak . . . | I.—Jesusen Biotz laba gartsua. (Aldran).
II.—Zek zakaz zerutik? (Batek).
III.—Zeru ta lurra. (Bik).
IV.—¡O Biotz gozo gozoa! (Iruk). |
|--------------------------|---|

Irutzuok liburu baten zortzi errealegan Dotesiorenean bertan dagoz salguei. Aldrako oiuak erriarentzakoak dira; bateko ta biko ta iruko oiuak, batzuk eta bitzuk eta irutzuk, gura izanezkerro, oiu eguiñ daikeez.